

Robotak eta neskameak

Garbiñe Ubedak egungo joera eta erabakiek etorkizunean izango duten eraginaz gogoeta sakona egin du bere iritzi-artikuluari.

Sekuentzia honetan ariketa hauek egingo dituzu:



- a) Testua irakurri eta, binaka, galderei erantzun.
- b) Galderari erantzunez iritzia eman. Ondoren, ordenatu roboten itxuraren arrazoiak garrantziaren arabera, eta atera ondorioak talde handian.
- c) Egiturei erreparatu eta testuan baliokideak bilatu.
- d) Ubedaren tesia eman, artikulua 60-80 hitzetan laburtu.

1. Ulermena lantzen

Irakurri Berria egunkarian Garbiñe Ubedak idatzitako artikulua

Robotak eta neskameak

berria



Europar eta Amerikan, etxeko lanetarako eta zaintzarako programatzen diren androideek Star Wars filmeko bi robot ospetsuei egiten diete keinu sarri, baina haiek ez bezala, femeninoak izan ohi dira, bai ahotsez, baita itxuraz ere. Halakoxea dugu, konparazio batera, “Leenby”, Cybedroïd enpresa frantziarrak katean produzitu eta momentuz 25.000 euroren truke saldu nahiko ligukeen neskame-erizain partikularra. Gerritik behera gurgilduna da, R2D2en irudira, eta gainerakoan, sasi-humanoa: ilerik gabea, dirdiratsua, metal eta plastikozkoa. Eskua estutzen omen dizu harrerakoan, eta berrikerian ere aski ongi omen daki, eta galderei ganoraz erantzuten.

Inteligentzia artifiziala, izan bosgarren belaunaldiko robot edo mirabe birtual, emakumetuta munduratu ohi da beraz, esan nahi baita eme gozo, gazte, erakargarri eta esanekoaren tankeran, baldin eta misio edo betebeharrak sofistikatukoagoetarako sortua ez bada behintzat. Kasu bereziotarako, gizonezkoaren taxua hartu ohi du siliziozko asmazioak (telebistako auto fantastikoa datorkit gogora, Kit izeneko hura). Horra hor paradoxa: patroiz sexistarik zaharkituenak futurismoaren izenean berrituta ikusi beharra. Japonian aurki genitzake kontraesan horren adibiderik argigarrienak, hoteletako zerbitzari, garbitzaile eta harrerarako laguntzaile lanetarako kontratatatu dituzten robotetan. Han, 80ko hamarkadako filmetatik urrun, hezur-mamizko emakume idealizatua alaitzen zehatzen imitatzea da kontua; zirkuitu elektronikoz eta sentzore ultramodernoekin egin dela ez jabetzea, bertatik bertara erreparatu arte.

(aurreko orritik dator)

Arrazoa bilatzen hasita, robot fabrikatzaile eta programatzaile gehienak gizonezko izateak izango du zerikusirik, baina esan dezagun, ezer baino lehen, erabiltzaileek oro har begi onez ikusten dutela orain arte hartutako bidea; gizonezkoek bezala baita emakumezkoek ere, nahiago dutela eme itxurakoari egin konfiantza.

Rol sexistez harago, bada joera horren azalpena testuinguru zabalagoan bilatu duenik. Batzu-batzuen ustez —tartean da Kathleen Richardson, robotikan eta antropologian aditua— emakumezkoa lagunkoiago jotzen dugu, gizartekoiago, eta gizonezkoa, berriz, erasokorrago. Hortaz, makina arrotzarekiko interakzioa xamur lezake interfaze femeninoak.

Nik neronek, ohiturari ere egotziko nioke erruaren zatia. Urteak dira inteligentziarik apenas duten aplikazioak emakume tinbrez —eta gogaikarri xamar, bide batez esanda— mintzo zaizkigula geure egunerokoan, esate baterako gasolindegietan («A gasolia aukeratu duzu», dio mangera ondotik atera ohi den ahots aluak), hipermerkatuetako edo autopistetako ordainlekuetan, aldirietako trenetan eta nonahi. Aspaldikoa da emakumea inbertsonalizatu edo ezpertsontatu zuen moldea.

Arriskutsuagoak genituzke Big Data sonatuak janez elikatzen eta trebatzen diren teknologiak, itzultzaile automatiko, online dendetako bidelagun eta enparauetan aurkitu ohi direnak. Algoritmo mamu horiek dituzte aseguruetarako tarifak erabakitzen, interesgarri gerta dakizkigukeen liburuak proposatzen, dena delako arloko joerak erakusten edota gure interesak bideratzen, eta beroriek, sexistak ez ezik, arrazistak, klasistak eta oportunistak ere badira, ikerlariek agerian jarri berri digutenez. Izango ez dira ba; gu geu gara-eta haien irakasle eta etsenplu. Geu, eta sare sozialetara isurtzen ditugun espantuak.

Eta honi guztiari galga eman diezaiokeen tresna baliotsuena ukatu nahi zaie biharko algoritmo programatzaileei, ikasketa curriculumetan. Filosofia. Humanitatea.

Garbiñe Ubeda.

2017ko apirilak 26.

Erantzun galderi binaka jarrita. Idatzi erantzunak eta ondoren, kontrastatu zuen iritzia talde handian.



1. Androideei itxura emateko joera zein den ikusirik, Ubedaren ustez, zein da paradoxa?

2. Artikulugileak hiru arrazoi aipatzen ditu patroi zaharkitu horiek gailentzeko. Zein?

1.

2.

3.

3. Nolakoak dira gure interesak bideratzen dituzten teknologia berriak, Ubedaren ustez? Zergatik?

4. Zein da eredu desegokiak saihesten lagunduko lukeen erabakia?

2. Roboten itxura



a) Jarri talde txikitan eta erantzun galderari. Adierazi gero ea talde guztietan bat zatozten ala ez adituarekin.



Kathleen Richardson robotikan eta antropologian adituak dio emakumezkoa lagunkoiago, gizartekoiago jotzen dugula gizonezkoa baino. Azken hau, aldiz, erasokorrago ikusten omen dugu. Ados zaude baieztapen honekin?

b) Ordenatu emakume-itxurako robotak fabrikatzeko arrazoiak garrantziaren arabera:

1- arrazoirik sendoena, eta 3 arrazoirik ahulena. Eman zuen ordenaren berri eta ikusi taldean zein den arrazoi nagusia.

- Robot fabrikatzaile eta programatzaile gehienak gizonezkoak izatea.
- Emakumezkoa, oro har, lagunkoiago eta gizartekoiago jotzea, eta gehienek nahiago izatea eme itxurakoari egin konfiantza.
- Ohituragatik. Urtetan makina gehienak emakume tinbrez entzuteagatik: GPSan, gasolindegietan, supermerkatuetan, aldierietako trenetan eta abar.

🏠 3. Eman baliokideak 🖍️

Erreparatu nabarmenduta dauden egiturei, eta aurkitu testuan horien baliokideak:

- Gerritik behera gurpilduna da, eta, gainerakoan, **humanoa-edo**. _____
- (Inteligentzia artifiziala) **emakume jaio** ohi da. _____
- Gizonezkoaren **itxura hartu** ohi du **siliziozko asmazioak**. _____
- Oro har, **ondo ikusten dute** orain hartutako bidea. _____
- Sare sozialetara **gure zaborra botatzea**. _____
- Online dendetako bidelagun eta **gainerakoetan** aurkitu ohi direnak. _____



4. Laburpena

Artikuluaren tesia emanez, laburtu testua 60-80 hitzetan.

ERANTZUNAK

1. Ulermena lantzen

1. Etorkizuneko eredueta patroia sexista zaharkituenak aurkitzea: robotak emakumeen itxurakoak egitea, eme gozo, eder eta esanekoaren tankeran; baina bestelako misio sofistikatuetarako gizonezkoen itxura ematea.
2. Arrazoiak:
 1. Fabrikatzaile eta programatzaileak gizonezkoak izatea
 2. Emakumezkoa lagunkoiago, gizartekoiago jotzea eta gizonezkoa, aldiz, erasokorrago
 3. Ohitura, inteligentziarik gabeko aplikazio gehienek emakume-ahotsa baitute.
3. Sexistak, arrazistak, klasistak eta oportunistak. Guk sare sozialetara botatzen dugun zaborraren araberakoak direlako.
4. Etorkizuneko ikasketa-curriculumetan filosofia, humanitatea irakatsiko dela bermatzea.

3. Eman baliokideak

- Gerritik behera gorpilduna da, eta, gainerakoan, sasi-humanoa.
- (Inteligentzia artifiziala) emakume munduratu ohi da.
- Gizonezkoaren taxua hartu ohi du robotak.
- Oro har, begi onez ikusten dute orain hartutako bidea.
- Sare sozialetara gure espantuak isurtzea.
- Online dendetako bidelagun eta enparauetan aurkitu ohi direnak.

4. Laburpena (eredu posible bat)

Emakume-irudia robotak "humanizatzeko" helburuz erabiltzen da, baina futurismoaren izenean patroia sexistak mantentzen dira. Arrazoiak hainbat izan daitezke: programatzaileak gizonezkoak izatea, emakumezkoak lagunkoiago eta gizartekoiago jotzea edota ohitura.

Hala ere, horiek baino arriskutsuagoak dira Big Dataz elikatzen diren algoritmoak, guk ematen baitiegu bazka gure ekintzekin sare sozialetan. Horiek sexistak, klasistak, arrazistak eta oportunistak dira. Eta salatzea dena da ikasketa-curriculumean hori guztia nolabait saihestu dezakeena ukatu nahi zaiela etorkizuneko algoritmo programatzaileei: filosofia, humanitatea.